



Bidaia intimoak

Korrika 16-k prestatu duen filma-omenaldia

Urtetan zehar ehunka mila izan dira Euskal Herrira lan bila, bizimodu hobe baten bila edo bizi ahal izateko leku bila, besterik gabe, bertaratu diren familiak. Eta horien guztien artean, hainbestek eta hainbestek, euskal herritarren ongietorria ongi baino hobeki hartuz eta ulertuz, ekarpen goraipagarria egin diote gure hizkuntzari. Euskal Herrira heldu, euskara ikasi eta erabili, hurrei irakatsi, gure kulturaz gozatu eta belaunaldiz belaunaldi gure hizkuntza transmititu dute. Egia da bestalde askok eta askok, belaunaldien poderioz euskara galdu dute frankismoaren edo frantses estatuko lege jakobinoen erruz. Zorionez, hauen artean ere badira euskara berreskuratzeko ahalegin aipagarria egin duten familiak.

AEK-k Korrikaren kariatara, pertsona eta familia horiek egin duten ekarpenagatik gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu; bestetik, beraien guztien ekarpena eta engaiamendua azpimarratu nahi dugu, kanpotik datozen familientzako eta bertan sortu eta hazitako familia oraindik ez euskaldunentzako eredu izan daitezen.

Bidaia intimoak dokumentala

Famili horiei Korrikaren omenaldia Bidaia intimoak filmaren bitartez eskainiko zaie. Dokumental honen protagonistak euskaraz bizi nahi dugunon herrira etorritako lau pertsona dira. Hala, Mixele, Rami, Jesus Mari eta Tereixaren ibilbidearekin euskaldun asko identifikatuko dira ziur aski, beraiek euskaraz bizitzeko egin duten bidaia antzekoa baita.

Mixele Lapurdin sortu zen, euskaldun, baina ama hizkuntza frantses eskola publikoaren eraginez galdu zuen haurtzaroan. Gaztetan berreskuratu ondoren, gaur egun irakasle dugu Itsasuko AEKn.

Rami Aljeriako Berberea dugu, gaztetan Parisera ikasketak egitera joana. Han ezagutu zuen Goizuetako neska batek ekarri zuen Euskal Herrira eta euskarara, eta gaur egun Goizuetan bizi da, euskaraz.

Jesus Marik euskara izan zuen ama hizkuntza, baina txikitan Ermuan eta gero Gasteizen bizitzearen ondorioz, galdu zuen euskara, eskolaren eta karrikako lagunen eraginez. Baina euskaldun eta abertzale sentitzen zen eta horrek bultzatu zuen euskara berreskuratzera, soldaduskatik itzultzean.

Tereixa, berriz, Galizian sortutakoa da, baina beste ainitz bezala, Bilbora etorri zen lan bila. Ikastoletan irakasleak behar zirela jakinik, berehala hasi zen euskara ikasten eta gaur egun Portugaleteko Asti Leku ikastolan ari lanean.

Filma horren egilea Jon Maia bertsolari, kantari eta idazlea dugu. Bere familiaren ibilbideak ongi baino hobeki islatzen du Korrika 16ren omenaldiaren espiritua. Nor bera baino hobeki protagonisten bizipenak ulertu eta sentitzeko ?

Fitxa teknikoa

Zuzendaria: Jon Maia. **Zuzendari laguntzailea:** Eriz Zampirain. **Gidoia:** Jon Maia. **Argazki Zuzendaria:** Jantxo Sardon. **Muntaia:** Guille Sanchez, Eriz Zampirain. **Produkzio arduraduna:** Izaro Goenaga. **Produkzio laguntzailea:** Nagore Olkoz. **Grafismoa:** Maite Leizaola. **Ekoizle Exekutiboa:** Unai Ibarbia.

Protagonistak: Rami, Michele, Jesus Mari eta Tereixa.

Orio Produkzioak ekoiztetxeak **AEK** eta **Korrika 16**rentzat eginiko dokumentala.